

AIARAKO KUADRILLA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2023-2027



AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
1.1. Marko juridikoa.....	4
1.2. Aiaraldearen testuingurua	6
2. PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK.....	8
2.1 . Plangintzaldi berriaren gidalerroak	8
2.2. Planaren metodologia, egiturak eta urratsak	9
3. DIAGNOSTIKOA	13
4. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA.....	16
4.1. Eragin-eremua	16
4.2. Eragin-epea	16
4.3. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak	16
4.4. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila.....	18
5. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK	20
6. 2023-2027KO PLAN ESTRATEGIKOA	21
7. KUDEAKETA PLANA	26
8. PLANA GARATZEKO EGITURA	32
9. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA	33
10. PLANAREN KOMUNIKAZIOA.....	34

1. SARRERA

19/2024 Dekretuaren bidez euskararen erabileraren normalizazioa arautu da euskal sektore publiko osorako (2. art). Aurrez, halaber, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zitzairen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztiei 86/1997 Dekretuan, baita hori gauzatzeko jarraibideak zehaztu ere (19/2024 Dekretuan ere jaso da, 17. eta 20. artikuluetan: “Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoa landu eta onartuko du plangintzaldi bakoitzaren lehenengo urtean, bere barne-antolamenduko arauetara jarraituz” eta “Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak plan estrategikoa garatzeko kudeaketa-plan bat edo batzuk egin eta onartuko ditu bi aldiz, gutxienez, plangintzaldi bakoitzean”). Baina aurreragotik hasitako ibilbideari jarraiki, EAEko Administrazio Orokorraren I. Plangintzaldia ezarri zen 1990. urtean, eta 2024an VII. Plangintzaldiaren hastapenetara iritsi gara.

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu batera ekarri gaituzte. Ardatz nagusietako bat da legeak erakundeei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Lehen Plana onartu zenetik 33 urte pasatu dira eta hamaika aurrerapen egin dira, baina euskararen kanpo-zein barne-erabileran badago oraindik zer hobetua hizkuntza ofizialen kudeaketa bikainaren bidean.

Testuinguru horretan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen erabilera normalizatzeko planen egitura berria zehaztu du VII. Plangintzaldirako: Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (aurrerantzean, KEMEN). Eredu berria da, eta metodologia ezberdin bati erantzuten dio, bai planteamenduan, baita aplikazioan ere.

Txosten honetan 2023-2027 bitartean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa jaso dugu. Plan honen helburua da Aiarako Kuadrillan euskararen egoera zehaztea eta berau hobetzeko egin beharrekoak ezartzea.

Plana diseinatzerakoan, goian aipatutako KEMEN metodologia kontuan hartu da: metodologia hori aplikatzeko kudeaketa-egitura berriak sortu dira eta plana elkarlanean diseinatu da.

1.1. Marko juridikoa

2022an berrogei urte bete ziren euskararen normalizazio-legea onartu zenetik. Hura izan zen administrazioa euskalduntzeko EAE mailako lehenengo lege-oinarria eta haren haritik beste hainbat lege, dekretu eta plan etorri ziren. Hemen horietako nagusiak jaso ditugu:

1982. 10/1982 Euskararen Normalizazio Legea. Bertan arautu ziren herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Horretarako, herri-aginteen betebeharra xedatu zuen, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatzeko. Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, administrazioko langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, administrazioko lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza araubidea. Ondorioz, legearen hastapen edo oinarriak funtsezkoena honako hau da: hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea.

1989. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia administrazioko langileak euskaraz jarduteko gaitzea izan zen, eta euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria izan zen, besteak beste, lanpostuen zerrendetan jaso beharreko hizkuntza-baldintzak eta betebeharrak zehaztu baitzituen. Diziplina araubidearen atalean ere, hizkuntzagatiko diskriminazioa dakarren edozein jarduketa hutsegite larritzat tipifikatu zen.

1992. Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna onartu zuen Europako Kontseiluak, eta, orduetik, hizkuntza-eskubideekiko errespetua jasota eta aitortuta dago. Espainiako Erreinuak 2001ean berretsi zuen administrazio guztiei dagokiela eremu urriko hizkuntzetan mintzatzen diren herritarrei haien hizkuntzan harrera egitea eta zerbitzua eskaintzea, eta eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetako hiztunen eta gainerako biztanleen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak ez direla diskriminaziotzat hartuko.

1997. 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. Dekretu honek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien EAEko herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxienezko osagaiak ezarri zituen, hau da, normalizaziorako helburuak betetzeko hizkuntza-politika eta horren jarraibide nagusiak ezarri zituen.

2005. Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko 4/2005 Legea. Printzipio orokorretan ere honakoa adierazten da (3. artik.):

«Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea. Honela definitzen duena: Euskal botere publikoek bermatu behar dute hizkuntza-eskubideak baliatzen direla eta euskararen erabilera sustatzen dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Horretarako, berdintasun-politikak garatzeko orduan, ziurtatuko dute, beste neurri batzuen artean, interesdunak aukeratutako hizkuntza koofizialean ematen direla zerbitzuak, herritarrentzako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla, eta langile eta profesionalentzako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela.»

Lege berak genero-ikuspegiaren integrazioaren gainean zera adierazten du:

«Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea.»

Printzipio horrek euskal herri-aginteen politika eta ekintzei erreferentzia egiten dienean, euskararen eremuan egiten diren politika eta ekintzak ere aintzat hartzen ditu. Beharrezkoa ikusten dugu, beraz, hizkuntza-politikaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen ote dugun gogoeta egitea, baita (ahal dela) lanerako oinarri batzuk jartzea ere. Azkenik, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua pertsonen eskubideak administrazio publikoekiko harremanak xedatzen ditu eta norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei.

2016. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udal lege berrian, 7. artikuluan lehenengo aldiz, “Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.”

2019. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretu horrek hainbat berrikuntza dakartza eta, zerbitzu hizkuntzan ez ezik, lan hizkuntzan ere urrats kualitatiboak emateko aukerak zabaltzen ditu.

2024. 19/2024 Dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeakoa. Bi xede nagusi ditu:

- Euskal Sektore Publikoko erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzea.
- Euskal Sektore Publikoko erakundeen hizkuntza planifikazioa eta lanpostuetako hizkuntza- eskakizunen sistema arautzea.

Dekretu honek ekarri dituen berritasunak:

- Dekretu honetan ezarritakoa aplikatuko zaie Euskal Sektore Publikoa osatzen duten zuzenbide publiko zein pribatuko erakunde guztiei (erakunde autonomoak, partzuergoak, fundazioak, enpresak, edota elkarteak barne)
- Hizkuntza-eskakizunak esleitzeko sistema malguagoa, erabilera errealean oinarrituta: Maila asimetrikoak.
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko bideei bi aukera berri gehitzen zaizkie.
- Hautaketa-prozesuetan, DD duten lanpostuetan, deialdia egiten duen entitateak proba osoa edo probaren zati bat euskaraz egitea erabaki ahal izango du.

- Planen kudeaketari dagokionez, gutxienez, HPSk ezinbestekotzat jotzen dituen adierazleak (KEMEN: Aginte Panela) jaso behar ditu diagnosiak.

1.2. Aiaraldearen testuingurua

Aiaraldea edo Aiarako Kuadrilla da Araba osatzen duten zazpi kuadrilla edo eskualdeetako bat, herri-aldeko ipar-mendebaldean eta izen bereko haranean kokatua.

Batik bat Nerbioi ibaiaren arroko herriak biltzen ditu, eta udalerrri hauek hartzen ditu kuadrillak: Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo. Guztira 328,12 km² ditu (Arabaren % 10).

Eustateko 2021eko datuen arabera Aiaraldeak 41.375 biztanle ditu eta horietatik % 38,48k euskaraz komunikatzeko gaitasuna du. Halaber, euskaldun eta ia-euskaldunen kopuruak batuta, Aiaraldeko biztanleriaren % 58,38k du euskararen ezagutzaren bat.

Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari dagokionez, hiru puntu igo da Aiaraldean dagoen euskaldun-kopurua 2016tik 2021era bitartean, % 35,9tik % 38,48ra igarota. Erdaldunen kopuruan, aldiz, beherakada egon da, euskaldunen igoeraren parekoa ia, % 44,03tik % 41,61era igarota.

BIZTANLEAK	EUSKALDUNAK	EUSKALDUN HARTZAILEAK
41.375	14.868	8.289

Euskarari dagokionez, Aiarako Kuadrilla ez da hutsetik abiatzen: 2018an Euskararen Erabilera Plana onartu zuen. Plan horren indarraldia 5 urtekoa izan da, 2018tik 2022ra, biak barne. Hain zuzen ere, indarraldia bat zetorren administrazioko Erabilera Planak bete beharreko VI. plangintzaldiko epeekin.

Honako hauek ziren Aiarako Kuadrillaren Erabilera Planaren (2018-2022) helburuak eremuka:

- **Hizkuntza gaitasuna**
 - Hizkuntza-eskakizunen egiaztapenak areagotu.
 - Arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetu.
- **Ahozko komunikazioa**
 - Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera areagotu.
 - Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera areagotu.
 - Erabilera-planaren eraginpeko langileen ahozko euskararen erabilera areagotu.
- **Idatzizko komunikazioa**
 - Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

- Erakundeko idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- Erabilera-planaren eraginpeko langileen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- **Internet eta Intranet sareak**
 - Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia areagotu.
- **Argitalpenak**
 - Argitalpenetan euskararen presentzia areagotu.
- **Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)**
 - Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta.
- **Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak**
 - Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotu, komunikagarritasuna zainduta.
- **Dirulaguntzak**
 - Dirulaguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.
- **Kontratazio administratiboak**
 - Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

2018-2022 Erabilera Planaren indarraldia igarota, 2023. urtean Aiarako Kuadrillak martxan jarri zituen VI. Plangintzaldiari amaiera emateko ebaluazioa eta VII. Plangintzaldiari hasiera emateko aurrelanak.

Hala, ebaluazioa osatu du aurreikusitako helburuen betetze-maila balioesteko, lortu ez diren helburuak lortzeko estrategia berriak definitzeko eta etorkizunerako helburu berriak prestatzeko.

2. PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK

2.1 Plangintzaldi berriaren gidalerroak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu dituen VII. Plangintzaldirako gidalerroen arabera, herri-erakundeok dagokigun autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

Aiarako Kuadrillan hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharizan hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen bitartez gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, Udalak sustapen-ekintzak abiatzen ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta gure erakundeko esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Helburu hau lortzeko, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Aiarako Kuadrillan hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak. Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk eman dituen hainbat aholku kontuan izan ditugu hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egiteko.

Izan ere, VII. Plangintzaldiko hiru elementurik funtsezkoenak —egitura, sistematika eta adostasuna— kudeaketari dagozkio; eta era berean, kudeaketak erabateko eragina du erabileran.

Horrela, egiturari dagokionez, hizkuntza-kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko beharra kontuan hartuta, hori gauzatzeko sistematika bat ezarri da, agintaritzan dauden pertsonak eta tarteko arduradunak inplikatur.

Bestetik, Aiarako Kuadrillak parte-hartzaile guztien adostasuna, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatu ditu. Hala, langileen partaidetza bultzatu da euskararen erabilera sustatzeko konpromiso individual eta kolektiboak hartzeko. Era berean, erakundeak langileekiko konpromisoak hartu ditu, normalizaziorako baliabideak jarriz eta trebakuntzarako erraztasunak emanez, besteak beste.

Aurrekoez gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundeen esperientziari erreparatuta, hainbat ondorio azaleratu dira. Besteak beste, EAEko sektore publikoak eskaintza linguistiko aktiboa egin behar duela, hizkuntza-hautuaren zama eta estres linguistikoa herritarren bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek modu proaktiboan parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan eta Plan honek horretan ere jarri nahi du begirada.

2.2 Planaren metodologia, egiturak eta urratsak

Esan bezala, Hizkuntza Politika Sailak (hemendik aurrera HPS) euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko eta tresna berriak garatu ditu, eta VII. Plangintzaldirako metodologia eta markoa proposatu ditu: KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako.

KEMENek erakundeetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketa erdigunean jarri da, eta euskararen erabilerrari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle).

Hauxe da KEMEN marko osoa:



Eta honako hau da aginte-panela:

KUDEAKETA

EUSKARAREN OROKORRA	KUDEAKETA	▶	1. Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
LIDERGOA		▶	2. Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
LANGILEAK		▶	3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK		▶	4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
			5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

ERABILERA

ZERBITZU- HIZKUNTZA	HERRITARREKIKO HARREMANAK	▶	6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
			7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
			8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
			9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
			10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
LAN-HIZKUNTZA	BARNE-HARREMANAK	▶	11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
	KANPO-HARREMANAK	▶	12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
	SORTZE HIZKUNTZA	▶	13. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
			14. Euskaraz sortzen dira dokumentuak

Lehenago aipatu dugun bezala, EAEko sektore publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 19/2024 Dekretuaren arabera, bestek beste, **erakunde guztiek eskuratu behar dizkiote Eusko Jaurlaritzari 14 adierazle esanguratsuenen informazioa**; gutxienez, plangintzaldiaren lehenengo, hirugarren eta bosgarren urteetan.


Esan bezala, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak osatzeko gidalero eta adierazle-sistema berriak hartu ditugu aintzat.

Prozesua metodologikoki bideratzeko talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratu ditugu, eta, horretarako, bi egitura sortu ditugu:

TALDE ERAGILEA	EGITURA ERAGILEA
<p>PARTAIDEAK</p>	<p>PARTAIDEAK</p>
<div data-bbox="189 645 421 842" data-label="Image"> </div> <ul style="list-style-type: none"> • Aiarako Kuadrillako Presidentea • Okondo, Aiara eta Artziniegako Zinegotziak • Aiarako Kuadrillako idazkaria • Aiarako Kuadrillako Euskara Teknikaria 	<div data-bbox="836 645 1043 842" data-label="Image"> </div> <ul style="list-style-type: none"> • Kuadrillako zein Udaletako ordezkari politikoak • Kuadrillako idazkaria • Euskara Teknikaria • Kultura Teknikaria • Berdintasun Teknikaria • Ingurumen Teknikaria • Okondoko Udaleko teknikaria • Landa Garapen Elkarteko teknikaria
<p>FUNTZIOAK</p>	<p>FUNTZIOAK</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Prozesua antolatu eta koordinatu (galdetegiak, Egitura Eragilea, garapeneko urratsak...). • Diagnostikoa osatzeko datuak bildu. • Behin betiko Erabilera Plana eta Kudeaketa Planak adostu. • Plana garatzeko urrats nagusiak planifikatu. • Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbidea bilatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Diagnostikoa kontrastatu eta osatu. • VII. Plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak proposatu eta adostu. • Planaren garapenean eta jarraipenean parte hartu. • Plan estrategikoa garatzeko ekintzak, epeak eta arduradunak proposatu eta adostu.

Urratsei dagokienez, honako eskema jarraitu da prozesu osoa bideratzeko:

LAN-PROZESUAREN ESKEMA



3. DIAGNOSTIKOA

Diagnostikoa egiteko, informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili dugu. Adierazle kuantitatiboak hasierako egoera zein den jakiteko erreminta egokiak izan dira, baina informazio kualitatiboa erabiliz, egoera ezagutzeaz gain, egoera hori hobeto ulertu eta interpretatu ahal izan dugu.

Hauek dira datu-bilketa egiteko erabilitako informazio-iturriak:

- **Langileen galdetegia:** Langileei hizkuntzen erabilerari, gaitasunari eta ohiturei buruzko galdetegia bidali zaie, eta euskararen erabileraren eta presentziaren inguruko datuak jaso ditugu. Guztira 14 langilek jaso dute galdetegia eta horietatik 9k erantzun dute, hau da, langileen %64,3k. Datuak aztertzerakoan beraz, kontuan izan behar da lagina txikia dela.
- **Erakundearen galdetegia:** Euskara-arduradunari euskararen presentzia orokorrari buruzko galdetegia helarazi zaio.

Jarraian jaso dugu Aiarako Kuadrillako euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazkia; KEMEN markoaren atal bakoitzean erakundea zein puntutan dago zehaztu dugu.

KUDEAKETA

ARLOA	ONDORIOAK
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> Erakundeak ez du erabilera-plana kudeatzeko sistema egituraturik, eta, ez da kudeaketa planaren eta hizkuntza irizpideen jarraipenik egiten, bai plan estrategikoarena, plangintzaldiaren erdiko eta amaierako ebaluazioaren bidez.
LIDERGOA	<ul style="list-style-type: none"> Arduradun politiko eta teknikoek ez dute parte hartzen planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean, informazioa jasotzera mugatzen dira. Lidergo politikoa falta da; politikoak bultzatzaile eta eredugarri izan beharko lirateke.
LANGILEAK	<ul style="list-style-type: none"> Langileei erabilera-planari eta hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa zeharka ematen zaie. Galdetegia erantzun duten langileen % 89k aitortu du ezagutzen dituela lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak eta %67an betetzen dira hizkuntza-irizpideak. Hizkuntza-irizpideak lanpostu bakoitzaren funtzio komunikatiboetara egokitu beharko lirateke. Langileek jarrera positiboa eta proaktiboa dute.
GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> Langileen % 44k aitortu du gai dela bere funtzioak euskaraz betetzeko, ahoz eta idatziz. Oro har, ez dago nahikoa gaitasun zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Arduradun politiko guztiak ez dira gai haien funtzioak euskaraz betetzeko; erdiak inguru.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera sustatzeko estrategia ez zaie herritarrei komunikatzean, eta, oro har, erakundeak ez du parte hartzen beste esperientzia batzuk ezagutzeko ekimenetan.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	<ul style="list-style-type: none"> Kontratu guztietan ez dira hizkuntza-klausulak txertatzen, eta ez da hizkuntza-klausulen jarraipenik egiten.

ERABILERA

Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
IRUDIA	<ul style="list-style-type: none"> Oro har, erakundeak betetzen ditu irudiari lotutako hizkuntza-irizpideak. Hutsunea agerraldi instituzionaletan dago, agerraldien % 20an erabiltzen da soilik euskara. Agerraldi publikoetan, euskaraz eginez gero, elebarrrekiko errespetu faltaren aurreiritzia zabaldua dago. Agerraldi publikoak bi hizkuntza ofizialetan egiteko neurririk ez da hartzen.
HERRITARREKIKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> Gero eta herritar gehiago zuzentzen da euskaraz erakundera. Herritarren hizkuntza-eskubideak ez dira % 100ean bermatzen. Langileen %22k egiten du euskaraz herritarrei zerbitzua eskaintzean, haiek zein hizkuntza erabili nahi duten esplizitatu arte. Langileen ia erdiak lehen hitza gazteleraz egiten du gehienetan. Idatzizko dokumentuen kasuan, euskaraz aurkeztutako idatziei euskaraz erantzuten zaie. Herritarrentzat antolatzen diren ekitaldietan euskararen erabilera %20koa da. Halaber, herritarrentzat antolatu diren azken ikastaroak gaztelaniaz antolatu dira.

Lan-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
BARNE-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> Gaztelera da ohiko hizkuntza, bai ahoz bai idatziz. Lan-bileren % 11 inguru izaten dira soilik euskaraz eta laneko hizkuntza-paisaia batez ere gazteleraz dago. Langileen euskara ezagutza nahiko altua da, eta erabilera areagotzeko aukera handia dugu. Halaber, zenbait langile prest daude euskaraz lan egiteko. Oro har, lankideen artean ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik; euskaraz hitz eginez gero, euskara-gaitasuna hobetzen lagunduko luke.
KANPO-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> Sektore publikoarekin izaten diren harremanetan, % 40 izaten da ahoz; idatziz, aldiz, % 10 izaten da euskaraz. Sektore pribatuaren kasuan, ehunekoa baxuagoa da.
PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Oro har, prestakuntza orokorra gaztelaniaz jasotzen dute langileek. Soilik %22k adierazi du azken urtean prestakuntza orokorra euskaraz jaso duela. Langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie, baina ez modu indibidualizatuan edo norberaren beharrak kontuan hartuta. Prestakuntza falta sentitzen da, euskaraz lan egin ahal izateko. Prestakuntza praktikoa eskaini beharko litzateke.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Langileek ez dituzte baliabide informatiko guztiak euskaraz erabilgarri; eta euskaraz erabiltzeko aukera duten kasuan, langileen % 23k soilik erabiltzen ditu euskaraz. Halaber, baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko prestakuntza eskaintzea komeniko litzateke.
SORTZE-HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> Sortze hizkuntzari dagokionez, gazteleraz sortzen da euskaraz baino gehiago, baina badira euskara hutsean sortzen duten zenbait langile.

Edozein modutan, informazio horretan sakondu nahi izanez gero, Aiarako Kuadrillako euskararen egoeraren gaineko diagnostiko osoa jasotzen duen dokumentura jo.



4. AIARAKO KUADRILLAKO EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

4.1. Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremuak Aiarako Kuadrilla eta bere ekipamendu guztiak hartzen ditu, eta atal guztietara hedatuko da.

4.2. Eragin-epea

19/2024 Dekretuak zehazten duenez, Plan estrategikoak plangintzaldi osoa hartuko du. Beraz, Plan honen eragin-aldia onartzen den egunean hasi eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalizaziorako prozesuaren VII plangintzaldia amaitzen den egunean.

4.3. Planaren erronkak eta helburu estrategikoak

Aiarako Kuadrillak 2027an non egon nahi duen hausnartuta, plan honen erronka nagusiak definitu dira:

KUDEAKETA

ERRONKA



Euskara Plana eguneroko kudeaketan txertatzea eta garatzea, erresistentziak gaindituz.

ERABILERA

ERRONKA



Herritarrekiko harremanetan hizkuntza-irizpideak bermatzea, eta lan-hizkuntzan euskararen erabilera areagotzea.

Era berean, erronka horiek lortzeko zer egin behar den adostu da, eta horrela definitu dira planaren erronkei eusteko helburu estrategikoak:

HELBURU ESTRATEGIKOAK

EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Planaren garapenerako eta jarraipenerako egiturak sortzea, arduradun politikoen inplikazioarekin.
LIDERGOA	Arduradun politiko guztien inplikazioa sustatzea eta hartutako konpromisoen jarraipena egitea.
LANGILEAK	Hizkuntza-irizpideak zabaltzea eta ezagutaraztea, eta hizkuntza-irizpideak betetzeko langileak sentsibilizatzea.
HIZKUNTZA-GAITASUNA	Langileak haien funtzioak euskaraz betetzeko trebatzea; eta baliabideak eskaintzea.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Euskara Planaren komunikazioa egitea herritarrei eta interes-taldeei, modu jarraituan.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratuetan hizkuntza-klausulak sistematikoki txertatzea, eta estrategikoak diren kontratuen jarraipena egitea.
IRUDIA	Agerraldi instituzionaletan euskararen presentzia areagotzea.
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta eskaintza aktiboa sustatzea.
BARNE-HARREMANAK	Langileen arteko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea, eta, baldintzak daudenean, lan-hizkuntza euskara izatea.
KANPO-HARREMANAK	Sektore publikoko erakundeekin euskararen erabilera areagotzea, ahoz zein idatziz.
PRESTAKUNTZA	Hizkuntza-trebakuntza espezifikoa eskaintzea.
BALIABIDE INFORMATIKOAK	Aplikazioa informatikoak euskaraz erabilgarri izatea osorik.
SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz sortze-hizkuntza areagotzea.

4.4. Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta derrigortasun-indizea

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 25. artikulua araberan, derrigortasun-indizeak adierazten du entitate bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuru osoaren ehunekoa.

Honela kalkulatu da derrigortasun-indizea: $DI = EUSKALDUNAK + (IA - EUSKALDUNAK / 2)$

Horretarako, kontuan hartuko da EAEko biztanleen euskararen jakite-mailari buruzko informazioa, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsu edo Estatistikaren azken datuetan oinarrituta, eta, hala badagokio, plangintzaldi bakoitzaren hasieran indarrean dauden balidazio-taula orokorretan.

Euskal sektore publikoko entitate bakoitzari dagokion indizea kalkulatzeko, haren jardunaren lurralde-eremua hartuko da kontuan. Hala ere, lurralde-eskumen mugatuagoa duten lurralde-deskontzentratutako unitateek beren jarduera-eremu espezifikoari dagokion indizea bete beharko dute.

Horren araberan, VII. plangintzaldi honetan, **Aiarako Kuadrillan nahitaez bete beharreko indizea %45,9 da**. Derrigortasun-indize hori 2021eko erroldako datu soziolinguistikoen araberan ateratakoa da (EUSTATEk eman dituen 2021eko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren araberan. 2021/01/01).

EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	DI = EUS-IA-EUS/2
%35,9	%20	% 45,9

Derrigortasun-indizeak gutxieneko ehunekoa adierazten du. Alegia, erakunde bakoitzak ehuneko horretatik gora jo dezake, bere egoeraren araberan.

Derrigortasun-indizearen betetze-maila

19/2024 Dekretuaren 22. artikuluan xedatuta datorren moduan, hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa. Euskal sektore publikoko entitateetako lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleitura, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera –hala badagokio–, nahitaez adierazi beharko da entitatearen lanpostu-zerrendan.

19/2044 Dekretuaren 23. artikulua araberan, lanpostu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen denean, euskal sektore publikoko entitateen zerbitzuko langileei aitortzen zaie lanpostu horri dagozkion eginkizunak euskaraz betetzeko behar duten gaitasuna.

Era berean, 23.2 artikulua zehazten duenez, entitatearen lanpostu-zerrendan derrigortasun-data beteta badago, nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea dena delako lanpostua eskuratzeko eta bertan jarduteko.

19/2024 Dekretuaren 24. artikuluan zehazten denez, derrigortasun-datak adierazten du lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizunak noiztik behar duen egiaztatuta izan. Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete beharko da dagokion lanpostu eskuratzeko eta bertan jarduteko, dekretu honetan salbuespenerako aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Behin derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostua betetzen duenak entitatearen hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan agindutakoaren arabera bete beharko ditu bere eginkizunak. Euskal sektore publikoko entitateek beren hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan jaso dezakete ezen hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu bat betetzen duten langile guztiek euskara ere lan-hizkuntza gisa erabili beharko dutela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute. (24.3)

Lanpostu jakin baten funtzioak hizkuntza-normalizazioko prozesuarekin lotuta daudenean, hala nola hizkuntza-normalizazioko, itzulpeneko edo interpretazioko eskalekin, lanpostu horri C2 hizkuntza-eskakizun simetrikoa esleituko zaio. Hizkuntza-eskakizun hori nahitaezkoa izango da lanpostua sortzen den unetik bertatik. Lanpostuen zerrendan TP (teknikari profesionala) letrak jarriko dira derrigortasun-datari dagokion lekuan. Lanpostu horiek ez dira kontuan hartuko derrigortasun-indizearen betetze maila kalkulatzekoan. (32.4)

Aiarako Kuadrillako azken Lanpostu Zerrendaren arabera 14 lanpostu daude, horietatik 1 Teknikari Profesionala, eta 8 lanpostutan derrigortasun-data ezarrita dago.

Bestalde, derrigortasun-data ezarrita daukaten lanpostuen artean, langile guztiek betetzen dute dagokien hizkuntza-eskakizuna.

LANPOSTU KOPURUA	DERRIGORTASUN-INDIZEAREN BETETZE MAILA	VII. PLANGINTZALDIAREN NAHITAEZKO DERRIGORTASUN-INDIZEA
14	%61,5	% 45,9

19/2024 Dekretuaren 24.4 artikulua xedatutakoaren arabera, plangintzaldi bakoitzean, entitateen plan estrategikoa onartzearekin batera, derrigortasun- data berriak ezarriko dira, hala dagokio. Beraz, VII. plangintzaldian Aiarako Kuadrillak 19/2024 Dekretuaren ezarpenak betetze aldera, derrigortasun-data berriak ezarriko ditu.

Jarraian, Aiarako Kuadrillako LPZ:

LANPOSTUAREN IZENA	Dotazio zkia.	HE	DD	Egiaztatutako HE
Idazkaria/kontu-hartzailea	1	4	2011/05/05	
Kontabilitateko eta kontu-hartzailetzako administraria	1	2	2011/05/05	
Sustatzaile ekonomikoa	1	3	Ez-derrigorrezkoa	2 HE
Animatzaile soziokulturala	1	3	2011/05/05	3 HE
Hizkuntza normalizatzailea	1	4	TP	4 HE
Hirigintza, obra eta ingurumeneko teknikari balioanitza	1	4	2011/05/05	4 HE
Berdintasun-teknikaria	1	4	2022/10/31	4 HE
Lanaldi partzialeko arkitektoa [i]	1	4	Ez-derrigorrezkoa	1 HE
Lanaldi partzialeko arkitektoa [i]	2	4	Ez-derrigorrezkoa	
Lanaldi partzialeko aparejadorea[ii]	1	3	Ez-derrigorrezkoa	
Lanaldi partzialeko aparejadorea[ii]	2	3	Ez-derrigorrezkoa	
Artxiboko administraria	1	2	2017/05/11	2 HE
Administrari laguntzailea	1	2	2022/10/31	2 HE
Gizarte Ongizateko administrari laguntzailea	1	2	2022/10/31	2 HE

5. HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

19/2024 Dekretuaren 9. artikulua araber, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartuko ditu, bere barne-antolamenduko arauari jarraituz. Onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dira.

Era berean zehazten duenez, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak denboran irauteko tresna bat dira; plangintzaldien eta plan estrategikoen iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko.

Aiarako Kuadrillak, 2023-2027 epealdirako, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Irizpideak hartuko ditu oinarri, eta lanpostu bakoitzaren funtzio komunikatiboetara egokituko ditu.

6. 2023-2027 PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2022ko planaren ebaluaziotik abiatuta, 2023ko diagnostikoa osatu da, plan estrategiko berriaren abiapuntua, hain zuzen ere.

Hala, VII. plangintzaldiaren hasieran bildutako autoebaluazio-datuetan oinarrituta KEMENeko arlo guztiei buruzko hausnarketa kuantitatibo zein kualitatiboa egin da. Horretarako, arloz arloko balorazioa egin du Erabilera Batzordeak, indarguneak eta zer hobetuak identifikatuz. Esan bezala, hausnarketa horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren erronkak eta horretarako helburu estrategikoak, neurriak eta bitartekoak identifikatu dira.

Jarraian, erronka eta helburu estrategiko horiek lantzeko KEMENeko adierazleen egungo egoera eta aurreikuspenak jaso ditugu, horixe izango da gure ibilbide-orria, gure plan estrategikoa, alegia.

Urdinez markatuta daude daude Aginte Paneleko 14 adierazleak eta grisez erakundeak aukeratutako gainontzeko adierazleak.

KUDEAKETA %33,1						
Kudeaketaren erronka		Euskara Plana eguneroko kudeaketan txertatzea eta garatzea, erresistentziak gaindituz.				
ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREIKU-SITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Planaren garapenerako eta jarraipenerako egiturak sortzea, arduradun politikoen inplikazioarekin.	1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	0	100	100
		2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	50	100	50
1.0.2 LIDERGOA	Arduradun politiko guztien inplikazioa sustatzea eta hartutako konpromisoen jarraipena egitea.	4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	8,2	40	31,8
		5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	50	70	20
1.0.3 LANGILEAK	Hizkuntza-irizpideak zabaltzea eta ezagutaraztea, eta hizkuntza-irizpideak betetzeko langileak sentsibilizatzea.	7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	46,4	100	53,6
		8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	75	80	5
		9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planeari adostutako eginkizunak	50	60	10

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREIKUSITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA	Langileak haien funtzioak euskaraz betetzeko trebatzea; eta baliabideak eskaintzea.	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	42,9	50	7,1
		13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	28,6	40	11,4
1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	Euskara Planaren komunikazioa egitea herritarrei eta interes-taldeei, modu jarraituan.	15	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	25	50	25
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Kontratuetan hizkuntza-klausulak sistematikoki txertatzea, eta estrategikoak diren kontratuen jarraipena egitea	17	Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	75	100	25
		19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	25	30	5

ERABILERA: %38,8

Erabileraren
erronka

Herritarrekiko harremanetan hizkuntza-irizpideak bermatzea, eta lan-hizkuntzan euskararen erabilera areagotzea.

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK				
		ZK	ADIERAZLEAK	BISIOA		
				HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREIKU- SITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
2.1 ZERBITZU HIZKUNTZA : %66,6	2.1.1 IRUDIA	23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	20	40	20
	2.1.2 HERRI-TARREKIKO HARREMANAK	25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	37,1	100	62,9
		26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	71,4	100	28,6
		27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	20	100	80
		28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	100	100	0
		29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	100	100	0

ARLOA	HELBURU ESTRATEGIKOAK	ZK	ADIERAZLEAK	HASIERAKO EGOERA 2023 %	AURREIKU-SITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
2.2 LAN HIZKUNTZA: %26,8	2.2.1 BARNE-HARREMANAK Langileen arteko ahozko harremanetan euskararen erabilera areagotzea, eta, baldintzak daudenean, lan-hizkuntza euskara izatea.	32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	11,4	20	8,6
		33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	30	50	20
		35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	44,3	60	15,7
		38	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	31	100	69
	2.2.2 KANPO-HARREMANAK Sektore publikoko erakundeekin euskararen erabilera areagotzea, ahoz zein idatziz	39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	41,4	60	18,6
		40	Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	10	30	20
	2.2.3 PRESTAKUNTZA Hizkuntza-trebakuntza espezifikoa eskaintzea	43	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	0	30	30
		45	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	25	50	25
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK Aplikazioa informatikoak euskaraz erabilgarri izatea osorik	46	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	25,7	100	74,3
	2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA Euskaraz sortze-hizkuntza areagotzea	48	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	45	50	5

7. KUDEAKETA PLANA

Kudeaketa-plana ekintza-plan bat da; plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko lanabesa.

19/2024 Dekretuaren 5. artikulua jasotzen du hizkuntza-plangintza egiteko, euskal sektore publikoko entitate bakoitzak, HOEI eta Plan Estrategikoez gain, Kudeaketa-planak onartu beharko dituela. Eta 20. artikuluan zehazten du kudeaketa-plan bat edo batzuk egin eta onartu dituela bi aldiz, gutxienez, plangintzaldi bakoitzean. Onarpen hori barne antolakuntzako arauak diotenari jarraituz egingo da eta onartu ondoren, entitatearen web-atarian argitaratu beharko da.

Jarraian azaltzen da plan estrategikoaren egiturarekin bat datorren 2024-2025 Kudeaketa-plana. Hain zuzen ere, Aiarako Kuadrillan Euskaren Erabilera Normalizatzeko 2023-2027 Plan Estrategikoan jasotako helburuak lortzeko ekintza zehatzak azalduko dira, bai eta ekintzon arduradunak, epeak eta segimendua egiteko epemugak ere.

1. ardatza	KUDEAKETA		
	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
1.0.1 KUDEAKETA OROKORRA	EGITURAK egonkortu erakunde guztietako ordezkariak bermatuz.	2024	Kuadrillako arduradun politikoak euskara teknikariarekin batera.
1.0.2 LIDERGOA	Formakuntza eta sentsibilizazioa eskaini.	2024	Euskara-teknikaria eta Euskara Batzordea
1.0.3 LANGILEAK	Hlak zehaztu, langile guztiei komunikatu, eta zabaldu (formatu erabilgarri batean eta langile bakoitzaren funtzioei egokituta)	2024	Batzorde Teknikoa
	Argitu zein kasutan gainditu daitekeen elebitasuna euskarari lehentasuna emanaz.	2024	Batzorde Teknikoa
1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA	Prestakuntza espezifikoak eskaini langile bakoitzaren funtzioak betetzeko.	2025	Euskara-teknikaria
	Euskaraz lan egiteko baliabideen trebakuntza eskaini.	2025	Euskara-teknikaria
1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Azterketa bat abiatu: kontratuak zerrendatu, lehentasunak markatu eta horietan klausulak aztertu; ez dauden kasuetan nola txertatu aztertu	2025	Kontratuaren arduraduna eta euskara-teknikaria
	Hizkuntza-klausula ereduak eskuratu eta teknikarien artean zabaldu	2024	Euskara-teknikaria
	Prestakuntza antolatu hizkuntza-klausulak txertatzeko	2024	Euskara-teknikaria
	Jarraipena: teknikari bakoitzak egin behar du berea, eta euskara-teknikariak ziurtatuko du. Batzorde Teknikoan jarraipena egin hiru hilean behin.	2025	Kontratuaren arduraduna, batzorde-teknikoa eta euskara-teknikaria

2. ardatza	ERABILERA		
	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK
2.1.1 IRUDIA	Agerraldietarako hizkuntza-kudeaketa zehaztu, eta agerraldien aurretik prestatu	2025	Batzorde Teknikoa eta Euskara Batzordea
	Ahozkoan euskararen erabilera areagotzeko, foro egokienak eta erosoena identifikatu (haur, nerabe...); horietan hasi euskararen erabilera areagotzen	2025	Batzorde Teknikoa eta Euskara Batzordea
2.1.2 HERRITARRE-KIKO HARREMANAK	Telefono bidezko harreran lehen hitza euskaraz bermatzeko neurri espezifikoak hartu.	2024	Batzorde Teknikoa eta euskara-teknikaria
	Herritarrei begirako hizkuntza-irizpideak langile guztiei azaldu/helarazi/gogoratu.	2024	Euskara-teknikaria
	Bisitak edo taldeak osatzen direnean: diskriminazio positiboa kontuan izan.	2024	Euskara-teknikaria
2.2.1 BARNE-HARREMANAK	Aktak kudeatzeko irizpideak adostu	2024	Batzorde Teknikoa
	Aktak idazteko formazio espezifikoa eskaini. (itzultzaile neuronala nola erabili, adib.).	2025	Euskara-teknikaria
	Ahozkoan harremanetan hizkuntza-ohituretan eragiteko dinamikak antolatu	2024	Euskara-teknikaria
2.2.2 KANPO-HARREMANAK	Aukerak identifikatu, eta alde biko harremana ele bietan eta euskaraz izan daitekeen harremana euskaraz ere egiten hasi.	2025	Batzorde Teknikoa
2.2.3 PRESTAKUNTZA	Prestakuntza praktikoa eskaini; besteak beste, pleguak euskaraz egiteko trebakuntza, eta Udal Batzarretako aktak egiteko trebakuntza.	2025	Euskara Teknikaria
2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	Intraneteko dokumentazioa (txantiloak) euskaraz jarri.	2024	Euskara Teknikaria eta Batzorde Teknikoa
2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	Lehentasunak markatu eta adostu zein dokumentu egingo diren ele bietan.	2024	Batzorde Teknikoa eta Euskara Batzordea
	Euskarazko txantiloak ereduak bilatu / sortu	2025	Euskara Teknikaria eta Idazkari-tzak (kuad+Udalak)
	Txantiloak identifikatu eta euskaratu	2025	Euskara-teknikaria

8. PLANA GARATZEKO EGITURA

Plan Estrategikoa eta Kudeaketa Plana garatzeko egitura zehaztea ezinbestekoa da.

Euskara Zerbitzuari dagokio egituren lidergoa, dinamizazioa, jarraipena eta sustapena antolatzea, eta, era berean, egitura hauek arduradun politiko eta teknikoek babesa izatea ezinbestekoa da planak arrakasta izan dezan.

Aiarako Kuadrillan bi egitura izango dira plan Estrategikoaren garapenaz arduratuko direnak:

Batetik, arduradun politikoek osatutako Euskara Batzordea izango da Planaren alderdi operatiboez arduratuko dena. Bestetik, Kuadrillako teknikariek zeharkako gaiak lantzeko Batzorde Teknikoa osatuko dute eta bertan landuko dira, besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planei lotutako gaiak.

EUSKARA BATZORDEA	BATZORDE TEKNIKOA
<p>EGINKIZUNAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Plan Estrategikoak jasotzen dituen helburuen betetze-mailaren jarraipena egin. Kudeaketa Planari lotutako eginkizunak koordinatu, ardurak banatu eta ekintzak gauzatzen lagundu. Talde Teknikoak proposatutako neurriak bideratu. 	<p>EGINKIZUNAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Kudeaketa Planaren garapena bermatu eta segimendua egin. Planaren barnean maila desberdinetan parte hartzen duten lankideekin komunikazioa landu. Kudeaketa Planean jasotako ekintzak gauzatzen lagundu, berriak proposatu eta koordinatu.
<p>PARTE HARTZAILEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Aiarako Kuadrillako arduradun politikoak Euskara teknikaria 	<p>PARTE HARTZAILEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> Kuadrillako langile eta teknikariak. Euskara teknikaria



9. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

19/2024 Dekretuaren arabera, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoan erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du, planifikazioan horretarako ezarriko dituen bitartekoen bidez.

Bestalde, Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dena.

Beraz, oso garrantzitsua da Planaren etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema bat zehaztea. Hala, Euskara Batzordeak kudeaketa-planean jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du, planaren Excel dokumentuan ¹bertan. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu urtez urte.

Ekintzen betetze-maila modu sinplean jasoko da urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz. Horrez gain, urte bakoitzean betetze-maila (egoera) erregistratzeaz gain ekintza bakoitzarekin lotuta zer egin den ere erregistratu ahal izango dugu, betetze-mailaren ondoan oharrak jasoz.

 KEMEN Kudeaketa eta erabilera markoa 							
KUDEAKETA-PLANA							
1. ardatza	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	URTEA	ARDURADUNAK	EGOERA	BALORAZIOA	OHARRAK
1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Euskara Planaren garapenerako eta jarraipenerako egiturak sortzea, arduradun politikoaren inplikazioarekin.	EGITURAK egonkortu erakunde guztietako ordezkari-tza bermatuz.		Kuadrillako arduradun politikoak euskara 2024 teknikariarekin batera.	BIDEAN		Aiarako Kuadrillan bi egitura izango dira plan Estrategikoaren garapenez arduratuko direnak: Batetik, arduradun politikoek osatutako Euskara Batzordea izango da Planaren alderdi operatiboez arduratuko dena. Bestetik, Kuadrillako teknikariek zeharkako gaiak lantzeko Batzorde Teknikoa osatuko dute eta bertan landuko dira, besteak beste, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari lotutako gaiak. Udaletako batzordeetan parte-hartzea argitu behar da.
1.0.2 LIDERGOA	Arduradun politiko guztien inplikazioa sustatzea eta hartutako konpromisoen jarraipena egitea.	Formakuntza eta sentsibilizazio eskaini, erabilgarri batean eta langile bakoitzaren funtzioei egokitu.	2024				
1.0.3 LANGILEAK	Hizkuntza-irizpideak zabaldu eta ezagutaraztea, eta hizkuntza-irizpideak betetzeko langileak sentsibilizatzeko.	Argitzea zein kasutan elebitasuna gainditu daitekeen euskarari lehentasuna emanaz.					

EGOERA
BIDEAN
EGINDA
EGIN GABE
BERTAN BEHERA
ATZERATUTA

Jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, urteroko Kudeaketa Planaz gain, honako tresna hauek baliatuko ditugu:

- HOEI
- Plan Estrategikoko adierazleak

¹ Ikusi KEMEN_EP eta KP_ Kuadrilla.xlsx

10. PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan. Prozesuko partaideen iritziak galdetegi bidez jaso dira eta Talde Eragilean zein Egitura Eragilean landutako informazioarekin eta ekarpenekin osatu da Plan Estrategikoa. Prozesuan zehar lankide guztiek izan dute bere ekarpena eta iritzia emateko aukera eta, prozesuaren emaitza ere partekatzea ezinbestekoa da.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana guztiontzako plana da eta guztiok dinamikaren parte sentitzeko komunikazio eraginkorrari eutsi behar zaio. Planaren garapenean ere, Aiarako Kuadrillan behar besteko garrantzia emango zaio komunikazioari, eta, aldiro, bideratzen diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzeko moduak aztertuko dira.

